AITZINA **Editorea:** Fermin Munarriz. **Koordinatzailea:** Mariasun Monzón. **Aholkularia:** Iñaki Egaña. **Diseinatzailea:** Juan Luis Napal.
**Helbidea:** Rincón de la Aduana, 18 behea. 31001 Iruñea. **Tlfnoa.** 948-21 99 99. **Faxa:** 948-212329. **E-mail:** aitzina@nafarkobi.net

## NORANTZA

**Alioxia Rodriguez**
Euskal Linux elkarteko kidea

# «Linux sistema eragilea euskaratzen ari gara»

Linux ordenagailuentzako sistema eragile bat da eta berau euskaratzeko lehen urratsak eginak ditu Euskal Linux elkarteak. Sistema eragile honek baditu, egun nagusi direnen aldean, hainbat abantaila.

**AMAIA MUNDIÑANO**

Alioxia Rodriguez Euskal Linux elkarteko kidea da. Elkarte hau zer den eta bere lana zertan oinarritzen den azaldu digu.

**Zer da Euskal Linux elkartea?**

Linux sistema eragile bat da eta, urte askotan zehar jardun bada ere, gizarteratu ez den sistema da. Berau erabiltzen duen jende asko dago, baina sakabanatuta. Sistema honek dituen abantailak kontuan hartu eta informazio hori gizarteratzea garrantzitsua zela iruditu zitzaigun, berau kaleratzeko inor ez baitzegoen. Hori dela eta, Linuxen munduan genbiltzan batzuk elkartu ginen eta elkartea sortzea erabaki genuen. 1997an sortu zen elkartea, ideia aurretik bagenuen ere. Iñaki Martinez izan zen taldearen sortzailea eta egun elkarteko lehendakaria da.

**Zein da sistema hau gizarteratu ez izanaren arrazoia?**

Linux sistema eragilea 60ko hamarkadan programatu zuen Linux Torvalds izeneko informatikari finlandiarrak. Garai hartan, lehengo izen batekin ezagutzen zen sarearen bitartez kaleratu zuen eta, aipatu sarera hurbiltzen ziren programatzaileak sistema eragile hau hobetzeko hainbat ideia luzatu eta gero, pixkanaka hobetuz joan den sistema dugu. Gaur egun Interneten aurki daiteke informazio guztia, www.euskal-linux.org helbidean. Sistema eragile honek hamar milioi erabiltzaile baino gehiago ditu egun munduan, baina, sistema ez komertziala izanik, bere hedapena oso murriztu da, komertzialak diren beste sistema batzuk, aldiz, Windows batez ere, gizarteratu eta hedatu dira.



OSKAR MONTERO

**Zer-nolako abantailak eskaintzen ditu sistema honek merkatuan dauden besteen aldean?**

Linux gainontzeko sistema eragileak baino hobea dela erakutsi nahi diogu gizarteari. Sistemari dagozkion abantailak asko badira ere, bi abantailok azpimarratuko nituzke: Linux sistema eragilea egonkorra eta fidagarria da, hainbat aspektutan merkatuan daudenak baino egonkorragoa, eta, bestalde, doan banatzen den sistema. Edozeinek erabiltzeko moduko sistema da eta Windowsek dituen erabilera berak ditu. Egia da ez dela Windows bezalakoa, sistema ezberdinak baitira, baina, komando gisa, berdinak dira eta sistema honekin eta besteekin egin daitezkeen lanak berdinak dira. Rankingean, munduan bigarren postuan dago Linux sistema eta konkurrentzia zuzena da Microsoft-entzat.

**Linux sistema eragilea euskaratzen ari zarete. Noiz egongo da erabiltzaileen eskuetan?**

Bai, hori dugu helburuetako bat, Linux sistema eragilea euskaratzea. Linuxek programa asko biltzen ditu bere baitan, instalaziorik sinpleenak 1.400 programa dituelarik. Beraz, programa kopurua kontuan hartuta, eta gure helburu nagusia euskaratzea bada ere, ordenagailuaren erabiltzaileei begira, erabilgarrienak diren programak euskaratzeari ekin diogu. Lan ingurumena, ofimatika, programa grafikoak, jokoak eta halakoak euskaratzen hasi gara. Dagoeneko % 2 euskaratu dugu eta, bakoitzak duen ohiko lanaren ondoren egiten dugula kontuan hartuta, urte honen amaierarako edota hurrengoaren hasierarako bukatua izatea espero dugu.

**Zein dira aurrera begira dituzuen asmoak?**

Markaturik ditugun helburu nagusiak garbiak dira: Linux sistema eragilea gizarteari ezagutaraztea eta berau euskaratzea. Helburu nagusi hauetaz gain, irakasle eta ikasleei baliagarriak izango zaizkien lan tresnak eskaintzea, haurrentzako joku didaktikoak sortzea, minusbaliatu fisikoei ordenagailuetara sartzea erraztea eta beste hainbat lan ere gure helburuen artean dira, hau guztia Linuxen inguruan gabiltzanok elkarlanean eta alor bakoitzean interesaturik dauden guztiekin lan eginez.

## ZIRTOKA



Txillardegi

### Abanto-Zierbena

Albistea otsailaren 18an eman zuen prentsak. Eta hitzez hitz transkribituko dugu: «El Pleno (Abanto-Zierbenan, Ibarrezkerrean, Bizkaian) aprobó ayer una moción que posibilita la futura apertura de la línea D en el Colegio Público El Casal, así como la sustitución del modelo B, existente en el Colegio Askarza-Isusi, del barrio Las Carreras, por una línea D».

Zein euskaltzalek ez du sekulako poza senditzen, Bizkaiko industriaren krisi larria ezaguturik; eta euskal deiturak harro-harro erakusten dituzten jauntxoen «alarde» betean (P.P.ko hautagai zerrendetan bereziki), Abanto-Zierbenako aberkide miresgarriak ezagutzean?

Goitik eta behetik zafraturik, inor gutxik dauka abantoarrek adina arrazoirik euskal projektuaz etsi, eta Euskal Herriaz ahazteko.

Hots, ez da hori gertatzen. Enkarterriarrek ez dute etsitzen; eta hizkuntza berreskuratu nahi dute, gosta-ahala gostarik.

Artean, Euskal Herria xurgatuaz eta zapalduaz aberastu diren neguritikoek, eskergaitz, beren botoa, beren dirutzak, beren ahalmenak oro, eskaintzen dizkiete gure herriaren zapaltzaileei, gu zapaltzeko sortuak izan diren egunkariei eta partidu anti-euskaldunei.

Ikuskaria ezin daiteke higuingarriagoa izan gaur, Ermuko Forokoen kakofonia hedatzen delarik.

Horregatik, eta bihotz-bihotzez: «Biba zuek, abantoarrak!». Bidea erpina da. Baina garaitzapena gurea izango da azkenean.

## AITZINDARIAK

